


a u z o z a u z o

**herrera-bidebieta**



## San Luis plazaren itxuraldaketa

**P**lan Bereziaren barruan San Luis plazako lehen aldaketa Herrera K.E. aren inguruan egingo den urmael edo estanke handia da. Urmael honek gaur egungo San Luis plaza gehiena hartuko luke.

Bestalde, Arruabarrena etxearen azpikaldean hiru solairuko aparkalekua eraikiko da eta Peruene baserri zaharra desagertu egingo da.

Peruene Berrira doan aldapan kultur zerbitzuetarako etxe berria eraikiko

da, eta bertan, besteren artean, zine emanaldieta-rako sala bat egokituko da.

Azkenik, zuhaitzez hornituriko paseabide bat irtengo da plazatik. Gainera, Txingurri ibaia ubideratuko da uholdeen arazoa konpontzeko eta trafikoa desbideratuko da.

### Berritzeko beharra

Herrerak berritzeko duen beharra izugarria da. Denbora luzean egon da auzoa inolako berrikuntzarik gabe eta bertako biz-

tanleentzat: bizitzea zaila gertatzen da.

Plan Berezi honen proiektuak burubelarri lanean jarri zituen Herri-Pe Auzo Elkarteko partaideak eta zenbait alegazio jarri dizkiote proiektuari, izan ere San Luis plaza aldeko etxebizitza ugari desagertzekotan baitaude proiektuaren arabera. Auzo Elkarateak aurkeztutako zenbait berrikuntza Udalak onartu egin ditu.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnou.:39 12 67)

### Bolo Txapelketa

Federatuaren barruan, apirilaren 17an Herrerako bolatokiari dagokion saioa ospatuko da. Txapelketa goizeko 10etan hasiko da eguerdi aldera arte eta arratsaldeko 4etan berriro ekingo zaio jokuari. Hone-tarako Antonio Goenagak prest eduki beharko du bolatokia, parte hartzaileak lasai joka dezaten. Partehartzaileen artean pertsona helduak daude eta trebetasun handiko bolo jokalaria.

**Txirrinda** ibilaldia antolatu da apirilaren 17rako, Euskal Giroa kultur, kirol eta solaserako elkar-teak duen zizkloturismo alorrean. Ibilaldia Meagas eta Elkanora abiatuko da (Zarautz inguruko herriak). Irteera goizeko 8.30etan izango da eta kontrolen ordutegia 9etan eta 11etan. Ibilaldiaren luzera 70 kilometrotakoa da.

7.000  
etxetan

**ZURE  
IRAGARKIA**

Prezio  
onean

IRUTXULON ☎ 28 04 97 / 28 06 36

**intxaurrondo**

**Galiziako** eguna ospatzen da apirilaren 17an ohizkoa den bezala.

Goizeko 11.30etan Intxaurrondoko kaleetan zehar, dantza eta musika izango dira Galiziako Etxeko "Triskele" taldearekin.


12.30etan, talde honek beste Donostiako dantza-talde batekin batera saio bat eskainiko du.

Arratsaldeko bostetan Triskele Eskolako partaideek gaita kontzertua emango dute eta ondoren muñeira eta kota lehiaketa egongo da.

Festari keimada handi batekin emango zaio bukaera. Ekintza guztiak Intxaurrondoko kioskoan izango dira.

Ospakizun honen sarrera gisa, gaur bertan, hilak 15, Galiziako gastronomiari buruzko hitzaldi bat emango du Jose Antoni Vilaboa Galiziako Etxeko presidentek Larrotxene Kultur Etxean arratsaldeko 7.30etan

**Aitonon etxea** Jubilatuen Elkarteak irteera antolatu du hilaren 20-rako Miarritze eta Ainhoara. Bazkaria Almandozen izango da eta prezioa 2.000 pezetakoa



Auzokideak haserre azaldu dira, etxea behera botatzearen ondorioz sortutako zaborra garbitu ez delako, kontutan izanda gainera, proiektu berrien lanak noiz hasiko diren jakiterik ez dagoela.

# Bota dute Etxaide Borda

**d**enbora luzean oso egoera txarrean egon ondoren, martxoaren 25ean Udalak Etxaide Borda behera botatzeko agindua eman zuen.

## Erortzeko arriskua

Etxe hau Parada base-rikko bidearen bukaeran zegoen eta historian zehar erabilpen asko izan ditu: Francoren goardiaren kuartela, La Salle eskola eta musika banda baten egoitza. Hala ere, azken urteetan, ez zen ezertarako erabiltzen eta zaintzeaz

inor arduratzen ez zenez, erortzeko arriskua handia zen. Gainera, bertara drogazale asko inguratzen zen.

## Auzoak berdeguneak nahi ditu

Zulo-Zahar Elkartearen Urbanismo Komisioak eskaera ugari egin zituen etxea bota zezaten Udalak behin betiko baimena eman baino lehen.

Bertarako proiektua Metereologi Institutua egitea da, orain arte Igeldo eta Mirakruz kaleen artean banatuta egon direnak bil-

duko dituen. Garrantzitsuena, zona berdea errespetatzea da. Intxaurrondon geratzen diren bakarretakoa da eta Institutua erakitzen bada ere, lur zati osoa horretarako ez erabiltzea eskatzen du Komisioak.

Orubeak 5118 metro karratu ditu eta berdegunea mantendu ahal izateko nahikoa leku dagoela uste dute.

NAGORE IRASTORZA (Tfnou.: 285749)

**BIKAIN AKADEMIA**

- Euskera • Ingelesa • O.H.O. •
- B.B.B. • U.B.I. • Matematika • ...

Baso Txiki, 36-38 Behea • 28 87 34 INTXAURRONDO

**ELVIRA** • Jaso eta itzuli 48 ordutan, doan.

**isaketa -garbiketa**

Intxaurrondo, 62. • 28 68 16